

eguraldi ona ailegatu da

Nahi gabe eta ziztu bizian iragaten da denbora eta erlojuko orratzek eta arratsalde luzeagoek aditzera ematen digute negua atzean utzi dugula, bai eta Eguberriak ere, non, beste urte batez umeek Udalak antolatutako jardueraz, Olentzeroz, Errege Magoez eta egun horiek oparitzen diguten zapore magikoaz gozatu baitzuten.

Termometroaren
igoerak
adierazten
du gutxi
falta dela
ikasturtea
bukatzeko
eta eguraldi
onak eta udaren
etorrerak
ekartzen
dizkiguten
gauza onez eta,
nagusiki, gure
herrietako bestez
gozatu ahal
izateko.



EZKABARTE

Udal Informazio Aldizkaria



2016ko maiatza
[43. zenbakia]

Herriko Jaiak:


Maiatzaren 20tik 23raArreko bestak
Ekainaren 17tik 19ra.....Zildoeko bestak
Ekainaren 25 eta 26**Ibarreko bestak**
(Makirriainen)
Uztailaren 22tik 24raOrrikaingo bestak
Abuztuaren 5etik 7ra.....Azozko bestak
Abuztuaren 27 eta 28a....Eusako bestak
Irailaren 2tik 5eraSoraurengo bestak
Irailaren 11**Y. Krosa- Bira Dorreari**
Irailaren 23tik 25era.....Orrioko bestak
Urriaren 12a.....Ezkabako bestak
Azaroaren 12aMakirriaingo bestak
Abenduaren 8aGarruesko bestak



2016rako Aurrekontuak


Gastuak-kapitulua

1.960.000,00 €



Diru-sarrerak-kapitulua

1.961.000,00 €



2016rako aurkeztu eta onetsitako aurrekontuetan, aurkeztutako zuzenketen arabera, honako hauek dira nabarmentzekoak:

- ▶ **9.175 €** kontu-sail baten onspena, Liburutegia ireki eta mantentzeko.
- ▶ Erabaki da Ibarreko Egutegirako kontu-saila kentzea.
- ▶ **2.000 €** kontu-sail baten aho bateko onspena, garraio publiko, gazteria eta berdintasunari buruzko beharren azterlanak egiteko. Horri dagokionez, Berdintasunerako Departamentuarekin bilera bat egin da aholkua eta laguntzez eta aukerez informazioa eman diezazkigun.
- ▶ Erabaki da lorategi publikoen mantentze-lanetako kontu-sailetik **20.000 €** deskontatzea, Amalur enpresaren kontratazioari dagokiona, orain arte hark Ibarreko berdegune guztien (Arrekoak izan ezik) mantentze-lanak egiten baitzuten.

UDALAREN DIRU-LAGUNTZAK

Ezkaibarteko udalak urtero aurkezten dituen aurrekontuetan zenbait kontu-sail agertzen dira gure herrietan urte osoan zehar egiten diren ikastaroak eta ekitaldiak, bai eta Ibarreko elkarteak ere diruz laguntzeko. Hau argi utzi nahi dugu, aunitzetan, ez delako Udala aipatzen ere, antolatzen diren gertakari ia guztietan Udala gastuaren zati handiaren edo gastu osoaren emalea izaki.

Herrietako bestetarako ematen den diru-laguntzaz gain, Euskararen egunaren besta,

Arreko krosa, Arre eta Makirriaingo Olentzero, Arre-Azoko Errege Magoen kabalkada eta gainerako herrietakoa ere diruz laguntzen dira. Musika eskolako ikasleendako, euskara ikasteko eta alfabetizazioarako diru-laguntza ematen da. Ezkaibarte Obra Sozialaren kontu-sailaren barruan, familia ahul eta egoera larrietako umeendako eskola jantokia laguntzen da diruz. Laguntza ekonomikoa jasotzen duten elkarten artean hauek ditugu: San Román Erretiratuen Kluba, Ezkaibarte Abesbatza, Mintzaki-de Elkarte eta Avance-Ezkaibarte Kirol Kluba.

Kontratazio berriak

Nafarroako Gobernuak Ezkaibarteko Udalari diru-laguntza bat eman dio eta, haren bidez, abenduan Ibarreko lau gazte kontratatu ziren.

Hauek dira bete behar zituzten behar-kizunak: 29 urtetik beheitikoak izatea, langabezian eta Gazte Bermeko Erregistroan izen emanda egotea. Azken behar-kizun hori betetzen zuten pertsona guztiak izan dira kontratatuak. Europak diruz lagundutako programa honek xede du langabezian dauden eta ikasketarik egiten ari ez diren 16 eta 29 urte arte arteko gazteen enplegua eta prestakuntza sustatzea. Kontzejuek ere diru-laguntza eskatzen ahal zuten. Bizilagun kopuruaren arabera, lau langile arte kontratatzen ahal zuten. Horrela, Arreko Kontzejuek lau gazte kontratatu ditu eta Eusa, Makirriain, Orrio eta Zildoizko Kontzejuek gazte bana.

Bestetik, Ezkaibarteko Udalak Nafarroako Gobernuak interes orokor edo sozialeko



obra eta zerbitzuak egiteko langabe-tuak kontratatzeko ematen dituen diru-laguntzak ere eskatu ditu. Deialdia Ibarrean bizi diren langabetu guztien-dako zen, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak helarazi zigun zerrendaren arabera. Otsailean egin ziren probak eta sei lagun kontratatu dira, Zerbitzu Anitzetako taldean, sei hilabetez, arituko direnak.

Kontratatu berri guztiak taldeka daude antolatuta, Udalak koordinaturik. Kontratuek irauten duten sei hilabetean zerbitzu anitzetako egitekoetan arituko dira, besteak beste Kontzejuek eskatutako lanak burutze aldera. Udalak uniformeetan eta lanak gauzatzeko materialen gastuak hartu ditu bere gain.

Lerro hauetatik egiten ari den lana eskertu nahi dugu. Langile berriek Zerbitzu Anitzetako taldeari emandako sostengua nabaria izan da. Izan ere, hiri ingurune garbiketa eta hobekuntzaz gain, obra eta/edo konponketa txikiak ari dira egiten gure herri guztietan. ■



Behin-behineko izen emateak

Behin-behineko izen emateak telefono honetan: **012** (948 012 012),
ekainaren 20tik 28ra (biak barne).

*Futbola
gustatzen
zaizu?*



*Etorri
eta gozatu*

*Anima
zaitez !!*

Etorri jokatzera Avance-Ezkabarte C.D.ra

2005 eta 2010. URTEEN ARTEAN JAIOTAKO GUZTIEI

- ✓ Futbola gustukoa izan edo haren inguruan gehiago jakin nahi baldin baduzu.
- ✓ Harremanak izan eta lagun gehiago egin nahi baldin badituzu.
- ✓ Erosoa, hurbila delako.
- ✓ Gure FILOSOFIA aintzat hartzen duzulako: adiskidetasuna, errespetua eta laguntasuna, orenen gaineratik. Denok gai gara eta elkarrekin taldea osatzen dugu.

GIMNASTIKA ERRITMIKOA EZKABARTEN

Zure aukera da, 4 eta 14 urte bitartekoa bazara, izena eman gimnastika erritmikoan.

- ✓ Gogoia biltzea areagotzen du
- ✓ Konfiantza handiagoa lortzen du
- ✓ Ahalkearen aurkakoa da
- ✓ Gorputz-jarrera hobetzen du
- ✓ eta ... **Dibertitu zaitez!**



BORROKA OLINPIKOAREN I. KIROL ESKOLA

[Burlata Borroka Klubak kudeatua 2016/2017 denboraldian]

Irakasleek Nazio mailako titulazioa dute, Borroka Olinpikoen eta Elkartutako Diziplinen Espainiako Federazioak aitortua. Orobat, kirol honen garapenean esperientzia luze eta zabala dute.

- ✓ 5 eta 15 urte bitarteko haurrei zuzendutako jarduera.
- ✓ Saio bat asteko, Arreko erabilera anitzetako aretoan. 10 ikasleko taldeak.

Zer da Borroka Olinpikoa?

Borroka Olinpikoa aurkariaren gorputzaren gaineko heltzeetan oinarritutako ukipen kirola da (mota guztietako kolpeak espresuki debekaturik daude), espazio mugatuan (tapiza) eta arautuan (adin eta gorputz pisuaren arabera) egiten dena.

Zergatik aritu Borroka Olinpikoetan?

Egiaztaturik dago kiroletan aritzea onuragarria dela osasunerako oro har, eta zehazki borroka olinpikoan aritzeak haurren garapen pertsonalean funtsezko diren balioak ematen dituela. Haien garapen fisikoa errazten du, haien gizarteratzea ahalbidetzen du, haien oreka psikologikoa sendotzen du, errespetatzen eta helburuak lortzeko lan egiten irakasten du.



Herritarren Parte-Hartzea Ezkaibarteko Plan Orokorrean 2016ko LOEE berrian

Udal Planeamendu Orokorren prestaketarekin lotutako herritarren parte-hartzearen prozesuak, araudiak araututako jendaurrean paratzeko aldiez gaindi doazenak, prozesu berriak dira.

Nafarroan ez dira nahitaezkoak izan Lurraldeari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea berrikusi den arte. Berrikuste horretan espresuki eskatzen da Plan Orokorren garapenari lotutako Herritarren Parte-hartzeari buruzko Plan bat egiteko, zeinek, "lanabesaren hasierako onespena" baino lehenago "herritarren parte-hartze benetakoa eta eraginkorra" bermatuko baitu.

Ezkaibarten, zehazki, Udal Plan Orokorra, kontratazio prozesuaren barruan, plan aitzindaria izan zen herritarren parte-hartzea sartzeari zegokionez. Adjudikatutako eskaintzak orduko biltzen zuten parte-hartze aktiboaren prozesuak

burutzea, lanaren LOEEren fasea egiteko prozesuaren barruan. Hori dela eta, Ezkaibarteko Herritarren Parte-hartzeari buruzko Planak, legeak galdatzen duenaren arabera LOEEren agiriarekin batera onetsia izan denak, ildo horretan gauzatutako ekintzak biltzen ditu, hurrengo faseetan egin gogo direnen aurreikuspezez gain.

Ezkaibarteko Udalak gaur egun onetsia duen LOEEK herritarrei kontsulta egiteko sistema batzuk izan ditu. Fase horretan, herritarrek parte hartzeko foroaren bi saio egin ziren. Bertan, udalerriko herritarrei kontsulta egin zitzaizen bertako etorkizuneko garapenari buruz zuten ikuspegiak eta etorkizuneko Hirigintza Planak ezarri beharreko lurraldea okupatzeko ereduaren inguruko aukerei buruz duten iritziaz.

Parte-hartze sistema honek kontsulta izaera du Udalak erabakiak hartzeari begira. Hortaz, dokumentua egin bitartean

bere borondatez iritzia eman eta dokumentuari ekarpenen bat egin nahi izan dioten pertsonen iritzia ezagutzeko modua da.

Prozesuak Udal Plan Orokorren bigarren fasean jarraituko du. Bigarren parte horrek, Udalaren Hirigintza Plana izenekoak, araudian eta planoetan zehaztu behar du ereduaren apustua diren ekintzak nola gauzatuko diren, zer erabilera garatzen ahalko diren, eraikinetako eraikuntza-parametroak eta haiek baldintzatuko dituzten araubideak, besteak beste. Fase honetarako ere beharrezkoa da herritarren ekarpena. Horretarako, Udal Plan Orokorren Herritarren Parte-hartzeko Planak aurreikusten du lan mahai bat eratzea, "Hirigintzako Mahaia" izenekoak. Mahai horren osaketak izaera tekniko markatua du; hortaz,

beharrezkoa izanen da terminologia parte-hartzaileei moldatzea. Orobat, udalerrikoak izan eta lurraldearekin lotura duten eragile gehienak bildu nahi ditu. Horretarako, Udalak elkarte eta eragile sozial batzuk gonbidatuko ditu mahai horretan parte har dezaten. Lan saioen ondoren herritarrei emaitzen berri ematen zaie parte hartzeko foroaren beste saio batean, Plana onetsi baino lehenago alde zuzenetik ezagut dezaten.

Herritarren ekarpena garrantzi handikoa izan da Udal Plan Orokorren garapenerako eta inportantzia izaten segituko du udalerriko etorkizuneko hiri garapenerako eman beharreko hurrengo urratsetan. Hauxe da udalaren apustua eta Ezkaibarteko bizilagunen erronka handia. ■

A ÍSLA tu casa y AHORRA

Aislamiento térmico y acústico

MADE IN NAVARRA

Aislanat, único aislante de celulosa **fabricado en Navarra.**

Aisla tu casa con celulosa, **en un día, sin obra, a un bajo coste** y con un producto totalmente **ecológico.**

50% ahorro En un día Sin obra

AISLANat
AISLANTE DE CELULOSA

BIOKLIMA NATURE

948 33 00 15 -627 41 22 69
www.aislantesaislanat.es

Estamos en el Polígono Industrial de Oricain/Orikain



Ezkaba Eskualdeko Parkea

Argazki: Eva Lara

Kontuan harturik Iruñerriko Mankomunitateak urtetan zehar ur horniduran eta saneamenduan, hondakinen bilketa eta tratamenduan, Eskualdeko hiri garraioan eta Ibai parkean gauzatutako kudeaketaren esperientzia eta emaitza onak, Mankomunitateak beste erronka bati ekin nahi dio, hots, Ezkaba mendian eskumena duten udal eta kontzejuak bateratzea hitzarmen bat sinatzeko eta Ezkaba Eskualdeko Parkea sortzeko I. fasea gauza dadin. Asmoa Eskualdeko beste parke bat sortzea da, lekune natural gisa mantentzeko eta bertan gauzatzen diren erabilerak eta jarduerak antolatzeko.

Faserako Mankomunitateak zein eremuko Toki Entitateek finkatutako helburuak honako hauek dira:

- Parte hartzeko prozesu publikoa erraztu eta gauzatzea proiektuaren prestaketan.
- Ondare baliabide naturalak definitzeko beharrezkoak diren azterlanak gauzatzea.

- Eskualdeko parkearen proiektua genero ikuspegia, jasangarritasuna eta efizientzia kontuan harturik egitea.
- Erakunde eskudunen aurrean proiektua izapidetzea parke gisa deklaratu izan dadin. Kudeatzeko azkenik erabakitzen den figura eratuko da.
- Ezkaba mendian proiektatutako jarduerak eta inbertsioak finantzatzeko baliabide ekonomikoak erdiesteko elkarrekin laguntzea.

Bi lantalde eratuko dira: bata Parkeko proiektuaren proiektua prestatzeaz arduratuko da eta, bestea, parte hartzeko prozesua dinamizatu eta gauzatzeaz. Mankomunitateko eta udalerrri guztietako partaideek osatutako Jarraipen batzordea hitzarmen honen xede diren jardueren jarraipenaz eta haiek gauzatzeaz arduratuko da eta bidezkoztat jotzen dituen proposamenak eginen ditu.

Ezkabarteko udalaren aldetik, Jarraipen batzordeari dagokionez, osoko bilkurak, botazioa eginda, Javier Iriarte zinegotzia (AIE taldekoa) izendatu du ordezkari. ■

Zakurrak, zikinberia eta heziketa

Udal Aldizkarian, aunitzetan, ingurune garbia eta atsegina, kalapitetatik aldendua, mantentzeko, bertan denok bakean bizi ahal gaitezen, auzoko guztien laguntza eskatzeko artikulua sartu badiugu ere, irudi du jende aunitzek, zehazki, abereen jabeek, zehazki, zakurren jabeek ez dituztela aintzat hartzen Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak eta etxeko animaliak edukitzeari buruzko Ordenantzako arauak (Ezkabarteko Udalak 2013an argitaratutakoa).

Lotsagarria da karriketaren barna paseatzea, Arren batez ere, bertan zakurren gorozki eta sabel-huskinak nonahi izaten baitira. Irudi du, maleruski, heziketarik eta gizalegerik ez dela. Oroitarazten dugu eta, behar adina aldiz oroitaraziko ere, eta auzokoak premiatzen ditugu aipatu Ordenantzako eginbehar eta betebeharrak betetzen ez dituzten pertsonak salatzen.

Garbiketa, portaera eta heziketarekin zerikusia duten puntu interesgarrienak azpimarratzen ditugu.

DEBEKUAK:

► Debeku da lotu gabeko zakurrak ibiltzea Ezkabarteko herri guztietan, baita ibilgailuak pasatzen diren kale edo errepedeetan ere, eta ibai parkean. Eredu horietan, pertsona arduradun batek lotuta eraman beharko ditu zakurrak, horretarako uhal bat erabiliz, gehienez bost metrora bitarte luzatzen ahaliko dena.

► Debeku dira zakurren edo beste edozein animalia gerozkiak kaleetan, parkeetan, lorategietan edo eremu publikoko beste

edozein eremutan, Ezkabarteko herrietako hirigunearen barnean, baita ibai parkean ere. Animalia daramanak bildu egin beharko ditu gorozkiak.

► Espresuki debeku da animaliak erabilera publikoko ur txorrotan edo iturrietatik zuzenean edatea.

► Orobat debeku da animaliarik izatea haurrak jostatzeko alderdietan, lorategi eremuetan, soropiletan eta landare multzoetan.

BETEBEHARRAK:

► Animalia erantzulea izanena da erantzulea, nahiz eta erantzukizun subsidiarioa jabearena ere izan, behar bezalako neurriak hartzeko animaliek bide eta eremu publikoak zikin ez ditzaten.

► Zakurrekin dabiltzen lagunak galarazi behar du zakurrak kaka egin dezan espaloi, galtzada eta eremu publikoko nahiz erabilerak publikoak duen eremu pribatuko beste edozein elementuren gainean.

► Arrazoi kontrolaezinengatik galarazten ahal ez badu, zakurraren eramailea behar turik egonen da aurreko lerroaldean zehazten diren lekuetan egindako gorotza jaso eta, behar bezala bildurik, eremu publikoan dauden zakarontzietan uztera, eta zikindutakoa garbitzeaz ere arduratu beharko du.

ARAU-HAUSTEAK:

► Zakurrak hiriko eremu publikoetan kate edo uhalik gabe eramatea.

► Lagun egiteko animalia gerozkiak bildu eta garbitu gabe uztea eremu publikoetan.

Ordenantza osoa Udalaren web orrian ikus daiteke: www.ezcabarte.es, Udala, Ordenantzak eta Erregelamenduak izeneko atalean.



Zain ditzagun
gure ingurunea,
gure bidexkak

**boluntario
izan zaitez**



Argazki: Eva Lara

turik, panelak paratzeari ekinen zaio. Bertan kartografia, profila eta egoeraren deskripzio laburra paratuko dira abiapuntuetan, hots, Zildotzen, Anotzen, Sorauren eta Arren.

Lan zirraragarri hori guztia gauzatzen ahalko da, aipatutako proiektuaren barruan gauzatutako jarduerak justifikatzeko oinarriek ezartzen duten bezala, auzokoen laguntza eta boluntario lanari esker.

Beti garaiz zaude, inoiz ez da berandu apuntatu nahi baldin baduzu eta beste boluntario bat gehiago izan. Ordainsaria ongi egindako lanaren emaitza da, bai eta ingurune naturala ere, zeinez denok gozatu eta harro sentitzen ahal garen. ■

Sigi-saga
enpresaren
elkarlanaren
bitartez, Ezkabarte

teko Udalak boluntario jardueretarako diru-laguntza lortu du 2016rako Caixa Proiektuaren barruan.

Sigi-Sagako teknikariek aurreikusitako eta Arreko Kontzejuan maiatzaren 28an aurkeztutako jarduera gure Ibarreko zenbait bidexka zaharberitu, mugarritu eta margotzearen bitartez seinaleak jartzean datza, baita horietan mugarriak jartzean ere. Behin bidexkak seinalezta-

EZKABARTEKO UDALAK, ENKANTE PUBLIKOAREN SISTEMA BIDEZ, 12 GARAJE PLAZA SALGAI PARATU DITU, ARREKO SAKANETA KARRIKAKO 20-22AN

Adjudikazioa enkante publikoan egingen da, plegu itxiaren sistemaren bitartez. Eskaintza onena egiten duenari egingen zaio adjudikazioa, galarazi gabe enkantea zenbait kasutan eman gabe utzi ahal izatea, plegu honetan xedatutakoarekin bat.

ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA:

Proposamenak, eskabide bitartez, Ezkabarteko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, jendea hartzeko orduetan, astelehenetik ostiralera 8:30etik 15:00etara. Aurkezteko epea 2016ko ekainaren 30ean, 15:00etan, bukatuko da.

Garaje plaza bat eskuratzen interesaturik daudenek informazio osoa, baita baldintzen plegua ere, Udalaren web orrian (www.ezcabarte.es) edo **948 330 341** telefonoan izanen dute eskuragarri.

EUSAKO URA

Garai batean Olaibar urez hornitzeko zegoen proiektuaren zirriborroa baliatuz, Eusa bertan sartzeko eskatu zen, modu horretan kosteak konpartitu eta murrizten ahal baitziren eta, hortaz, proiektua bideragarri suertatu.

Bilera eta eztabaida aunitzen ondoren, martxoaren 22 asteartean egindako Osoko Bilkura Berezian, Iruñerriko Mankomunitateak aurkeztutako azken proiektua onetsi zen (zortzi boto alde eta bat kontra). Proiektuak Olaibar (Olaitz, Olabe eta Enderitz) eta Ezkabarte (Eusa) hornituko ditu.

Proiektua presakoa dela deklaratu da.

- Erabaki da Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiari eskatzea proiektua Toki Azpiegituren Planearan premia aitortukotzat sar dezan.
- Erabaki da proiektuko obrak hasteko baimena eskatzea.
- Obra finantzatzeko plan ekonomiko finantzarioa onetsi da, Ezkabarteko Udal honi dagokionez.
- Administrazioa jakitun izateko aurrekontuak 3.207.118,56 euro egiten ditu. Kopuru horretatik Ezkabarteko Udalari 539.402,23 euro egozten ahal zaizkio.



Elkartasunezko tapoiak

2013an Udalak plastikozko tapoiak biltzeko kanpainari ekin zion, funtsak erdietsi eta elkartasunezko proiektuetara bideratzeko. Nereari laguntzen hasi ginen, haren gaixotasunaren bilakaeran aurrerapenak lortzea helburu; beranduago Pablari lagundu genion haren tratamendua eta errehabilitazioa finantzatzen.

Gogoz eta ilusioz beterik abiatu zen kanpaina bukatu da. **Hemendik esker ona adierazi nahi diegu eskuzabal parte hartu duten auzokoei, bai eta tapoiak bildu dituzten establezimendu laguntzaileei ere.**

Berriak

★ Udalak dituen ibilgailuen egoera txarra eta beharra ikusita, **Renault Mascot 2 CA furgoneta bat**, erdi berria, erosi da, 15.702,48 euroan. Haren tamaina eta prestazioak kontuan harturik, orain arte egin ezin zitezkeen lanak gauzatzeko aukera izanen da.

★ Orobat, Udalak **karpa desmuntagarri bat** erosi du, bertan Ezkabarteko udalerrria osatzen duten Kontzejuetako bestak eta gertakariak ospatu ahal izateko. Alde batetik gaurko udal karparen egoera txarrak (2015ean egoera akastunak ustekaberen bat sorrarazi zuen) eta, bestetik, Ibarreko kontzejuetako buru gehienek eskatu izanak ikusarazi dute horren beharra.

★ **Zerbitzu Anitzek lokala aldatu dute.** Orain arte arropa aldatzeko eta biltegi gisa erabiltzen zuten lokala Arreko Irungo etorbideko bajera batean zegoen, baina txikia gelditu da. Aspaldian Alkatetzak honek nabe berria erosteko asmoa zuen, denetarako eta denontzako toki askia izan zedin. Oraingoz aukera onik azaldu ez denez, nabe bat alokairuan hartzerako jo da, Arreko Ezkabarte industrialdean (M kalea, 34. nabea). Hilean 500 euro ordainduko dira. Nabeak 166,34 metro karratuko azalera du, gehi gainsolairu bat, aldagela bereziak eta bulegoa, eta dagoeneko Udalaren biltegia hor instalatu da.



NAFARROAKO ESTADISTIKA INSTITUTUA

Nafarroako Gobernuak, zehazki Nafarroako Estadistika Institutuak, 2016an, Nafarroan, **“Etxeetako Gastuaren inguruko Inkesta”** izenekoa gauzatu behar du. Etxeek bertan parte hartzea oso garrantzizkoa da Nafarroako errealitatera hobeki hurbiltzeko eta politika sozial eta ekonomikoak planifikatu ahal izateko.

Gure udalerrria inkestan parte hartzeko hautatu dute. Hortaz, urtean zehar, behar bezala kreditatutako langileak, alde zurreretik hitzordua eskatuta, ikerketa egiteko hautaturiko etxeetara joanen dira.

ARREKO UR ANDEL BERRIA



Joan den urteko ekainean, Arren kokaturiko ur andela lehertu zen egiturazko akatsa zela kausa, eta orduz geroztik bere horretan jarraitu du, hots, hondatzeko zorian, suntsitzearen zioen inguruko azterlan eta txostenak egin ahal izateko. Aurtengo urtarrilean, Iruñerriko Zerbitzuek premiaz hondakinak botatzeko eta hondakinak kentzeko eskatu zuten, andel berria erakitzea helburu.

Mankomunitatetik eman diguten informazioaren arabera, hondatutako andelaren hondakinak suntsitzeko lanak gauzatu dira.

Orobat, hondatutako andela ordeztuko duen berriaren proiektu idazketa bukatu da. Andel berriaren obra aurtengo azken lauhilekoan hasiko delakoan gaude.

Avance-Ezkabarte Kirol Kluba Elikagai Bankuarekin Elkarlanean

Joan den urtarrilean, AVANCE-EZKABARTE Kirol Klubak Ezkabarteko Udalarri txartel salmentarekin eskuratutakoa eman zion, Avance-Ezkabarte Kirol klub eta Agoitz Kirol klubaren artean lehiatutako partida baten atsedenaldian zozketatutako sari batena, hain zuzen. Diru bilketa, 225 euro, Klubak eskaturik, Elikagai Bankuaren familia onuradunen beharrak asetzerantz bideratuko da.

Borondatez eta kiroltasunez beteriko keinua.

Elkartasuna eta kirola eskuz esku baturik. Eskerrik asko!!!

Jaiotzak

Beti izaten da poz ikaragarria umetxo bat jaiotzea; horregatik, hartu gure Zorionak eta ongietorria:

Oier Oroz Garro (Arre)
Nahia Rosso Serrano (Azotz)
Aitana Martinez Garcia (Arre)
Marco Fernandez Rodriguez (Arre)

Heriotzak

Gure oroimenean daude:
M^a Jesus Lizarrondo Larraya (Arre)
Venancio Uriz Olleta (Arre)
Eusebio Urtea Uranga (Sorauren)
M^a Teresa Arangoa Lizarraga (Sorauren)
Maria Franco Serrano (Arre)
Jesus Cilveti Munarriz (Makirriain)

TELEFONO INTERESGARRIAK:

Ezkabarteko Udala (Orikain)	948 330 341
Kexak eta iradokizunak	012
Genero indarkeriaren aurka	016

Bidez Osasun Etxeak (Arre)	948 332 335
Ezkabarte kiroldegia (Azotz)	948 330 758
Publizitatea Aldizkariaren	948 248 324